



Arartekoaren 2015S-1241-15 Ebazpena, 2015eko azaroaren 16koa. Horren bidez, Osakidetzari iradokitzen zaio, Baclofeno intratecal tratamendurako aktibitate mailak bidea ematen duenean Donostiako Unibertsitate Ospitalean emateko aukera azter dezan.

Aurrekariak

Erreterian, Gipuzkoan, bizi den eta esklerosi hirukoitza duen pertsona batek adierazi digu, espastiziterako Baclofeno intratekal infusio bonba jarri diotela eta aldiro (40 egunetik behin) Gurutzetako Ospitalera aipatutako Baclofeno sendagaia hartzera joan behar izaten duela eta bidai horrek suposatzen dion zailtasuna.

Ospitale horretara joateko gurgil-aulkia behar du eta joan-etorri horrek eragiten dizkion trabak geroz eta handiagoak dira, haren minak okerrera egin baitu.

Gauzak horrela, Gurutzeta Ospitaleraino joan behar izatea saihestu nahi du eta, hala, behar duen botikaren karga haren erreferentziako zentroan jaso (Donostiako Unibertsitate Ospitalean).

Aurrekari hauek oinarrituz Osakidetzari informazioa eskatu genion. Jaso dugun erantzunean jakinarazi digute bere kasua Donostiako Ospitaleko Minaren Unitateko Nagusiarekin aztertu ondoren, Donostialdeako ESiko Zuzendaritza kudeaketak uste duela gaur egun ezin dutela tratamendu hau eman, *“Donostia Unibertsitate Ospitalean ez dutelako pazienteari bere espastikotasuna tratatzeko agindutako Baclofeno intratekaleko tratamendurik, hori Gurutzeta Unibertsitate Ospitalean bakarrik eskuragarri dagoelako.”*

Gogoetak

Erantzunak ez du informazioa ematen Baclofeno intratekaleko tratamenduak gaur egun Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean bakarrik egoteak hura erabiltzeko trebetasun nahikoa izateko gutxieneko jardueraren exijentziarekin lotuta dagoen jakiteko.

Honek, gaur egun, arreta egokia bermatzeko ezintasuna ekarriko luke, Donostiako Ospitaleak ezin duelako irizpide hori bete.

Honi dagokionez, ikusi dugu, intratekala, esperientzia zehatza duten ospitale zentroetan eta egoki kalifikatutako medikuen ikuskaritzapean egin behar dela.





Horrela ulertzen dugu Sendagaiaren eta Osasun Produktuen Espainiar Agentziak jasotako irizpideen arabera, sendagai honen dosiaren tratamendua intratekal bidetik egokitu eta ematea ospitalean mediku ikuskaritza zorrotzarekin eta esperientzia zehatza duten kualifikatutako zentroetan egin behar dela, pazienteen jarraipen jarraitua bermatzeko helburuz.

Informazio honen arabera, badirudi tratamendu honetan bete beharreko irizpideen artean, jarduera, trebetasuna, dagoela, hau da, arreta egokia emateko urtean egin beharreko tratamendu kopurua.

Horrela izatekotan, Donostia Unibertsitate Ospitalaren erreferentzia eremuan aurreikusitako jarduerak baimentzen duen heinean, badirudi tratamendu hau zentro horretan eskaini ahal dela.

Horregatik guztiatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak erakunde hau sortu eta arautzekoak, 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Osakidetzari igorri zaio honako

Iradokizuna

Baclofeno intratecal tratamenduaren posologia eta administrazioa burutzeko, aurreikusitako aktibitateak formazio egokia eta esperientzia baimentzen dituen heinean, hura Donostiako Unibertsitate Ospitalean emateko aukera azertu beharko litzateke.

